



Covid-19 pandemiagatik establezimenduak higiene edo/eta babes behar berrietara egokitzeko dirulaguntza

Subvención para la adaptación a las nuevas medidas de higiene y/o protección generadas por la pandemia Covid-19

JARDUERAREN TITULARRA/TITULAR DE LA ACTIVIDAD

IZENA/NOMBRE	ABIZENA 1/APELLIDO 1	ABIZENA 2/APELLIDO 2	NAN/DNI
SOZIEATEAREN IZENA/NOMBRE DE LA SOCIEDAD		IZF/CIF	
HELBIDEA/DIRECCIÓN		PK/CP	HERRIA/POBLACIÓN
TELEFONOA/TELÉFONO		EMAILA/EMAIL	

AGIRIA AUZKEZTEN DUENA/PRESENTADOR DEL DOCUMENTO

IZENA/NOMBRE	ABIZENA 1/APELLIDO 1	ABIZENA 2/APELLIDO 2	NAN/DNI
SOZIEATEAREN IZENA/NOMBRE DE LA SOCIEDAD			
HELBIDEA/DIRECCIÓN		HERRIA/POBLACIÓN	
PK/CP	PROBINTZIA/PROVINCIA	TELEFONOA/TELÉFONO	EMAILA/EMAIL

JAKINARAZTEKO HELBIDEA/DIRECCIÓN DE NOTIFICACIÓN


JAKINARAZTEKO HELBIDEA/DIRECCIÓN A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN	PK/CP	HERRIA/POBLACIÓN
--	-------	------------------

JARDUERAREN DATUAK/DATOS DE LA ACTIVIDAD

HELBIDEA:
JARDUERA MOTA:
IZEN KOMERTZIALA:

JARDUERAREN ITXIERA/CIERRE DE LA ACTIVIDAD

<p>Elegir una de las dos opciones:</p> <p><input type="checkbox"/> La actividad ha cerrado obligatoriamente por el art. 10.1 del Real Decreto 463/2020 por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19.</p> <p><input type="checkbox"/> La actividad se ha mantenido abierta pero la facturación se ha visto reducida durante dicho periodo al menos en un 40% respecto al mismo periodo del año anterior.</p>



HELBURUA

Dirulaguntza lerro honen helburua da COVID 19ko pandemiagatik beharrezkoak diren higiene edo eta babes neurri bereziak ezartzeko material erosketak eta inbertsioak finantzatzea. Laguntzak zuzenduta daude Arrasateko establezimenduei, euren zerbitzua emateko bezeroak aurrez-aurre artatzen dutenak, COVID 19ri lotutako alarma egoeran itxita egon direnak, edo eta zabalik egon direnak baina aurreko urteko epealdi berekoarekin alderatuta, gutxienez, %40ko fakturazio beherakada jasan dutenak.

ZEINEK ESKATU DEZAKE

Arrasateko enpresak edo elkarteak baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Arrasaten kokatutako establezimendua edukitzea.
- Arrasateko Udalarekin zorrik ez edukitzea.
- Arrasaten kokatutako establezimenduaren jarduera nagusia publikoa bertatik bertara artatzekoa izatea.
- COVID 19 alarma egoera bitartean itxita egon izana, edo epealdi horren fakturazioa, iazko epealdi berarekin alderatuta, gutxienez %40an murriztuta eduki izana.
- COVID 19 pandemiagatik publikoa artatzearekin lotutako zerbitzua emateko higiene edo eta babes neurri berezi berriak ezarri behar izatea.

DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PRODUKTU ETA INBERTSIOAK

Laguntza lerro honen bitartez diruz lagunduko dira COVID 19 pandemiagatik publikoa artatzeko establezimenduan ezarri beharreko higiene edo eta babes neurri berezi berriekin lotutako halako produktu, ekipo edo eta instalazioen gastuak:

- BEP (babes ekipo pertsonalak).
- Espazioak higienizatzeko produktu eta ekipo bereziak.
- Salgaiak higienizatzeko produktu eta ekipo bereziak.
- Bezeroak eta establezimenduko langileak babesteko instalazio eta ekipo bereziak.
- COVID 19 pandemiagatik publikoa artatzeko establezimenduan ezarri beharreko higiene edo eta babes neurri bereziekin lotutako bestelakoak.

Programa honek lagundu ahalko ditu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eginiko material erosketak edo inbertsioak (fakturaren data hartuko da kontuan).

PROGRAMA HONEK EZ DITU LAGUNDUKO GASTU MOTA HAUEK:

- COVID 19 pandemia gertatu aurretik establezimendua zerbitzua normaltasunez emateko ezarrita behar zituen berezko higiene neurriekin lotutako material erosketei eta inbertsioei dagozkionak.
- Establezimendua berak salgai jartzeko diren higiene edo babes produktuei dagozkionak.

DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Programa honek establezimenduak eginiko material erosketa edo inbertsioaren, gehienez, %50a finantzatuko du, gehienez jota 500€ enpresa edo elkarte bakoitzari.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 1 Eskaera orria beteta.
- 2 Enpresaren edo elkartearen IEZren alta egiaztagiria.
- 3 Ziurtagiriak, zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean izatearenak, diru laguntza eskaera aurkezteko uneari dagozkionak.
- 4 Enpresaren edo elkartearen ordezkariaren NAREN kopia.
- 5 Jarduera etenaren ziurtagiria (463/2020 Errege Dekretuz ixtera derrigortuta izan bada, zinpeko adierazpena eskaera orrian bertan).
- 6 Aurreko urteko apirila edo maiatzeko fakturazioa eta aurtengo hilabete berdineko fakturazioa (alarma egoeran zabalik egon bada establezimendua).
- 7 COVID 19 pandemiagatik publikoa artatzeko establezimenduan ezarritako higiene neurri berezi berriekin lotutako gastu eta inbertsioen fakturak.
- 8 Arrasateko Udalari beharrezkoa iritziz gero, kasu bakoitzean eska lezakeen beste dokumentazio gehigarria.

5. eta 6. dokumentuak ez dira aurkeztu beharko, baldin eta hobaria jaso bada Udalarengandik "COVID 19 pandemiaren ondorioz itxita edo zerbitzu minimo bat eskaini duten jarduera ekonomikoei tasak itzultzea" programatik.

ESKERA NOLA IZAPIDETU

Telematikoki, udalaren web orriaren bitartez www.arrasate.eus edo **BAZ**en (Biztanleen Arreta Zerbitzua).

ESKAERA EPEA

Irailaren 18tik, urriaren 18ra.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Arrasateko udalaren web orrian www.arrasate.eus
- **BAZ** (Biztanleen Arreta Zerbitzua)
 - > E-posta: baz@arrasate.eus
 - > Tel: **943252000**